

Kriminologiako Gradua aztergai-3:

SOZIOLOGIAKO SARRERA

Irakasgaia: Komunikazioa Euskaraz Arlo Juridikoan

Saioa MARTIN ANDUAGA

AURKIBIDEA: I. Sarrera.-II. Kultura eta gizartea.-III. Sozializazioaren kontzeptua.-IV. Sozializazio prozesua.- V. Birgizarteratzea, konformitatea eta desbideratzea.-VI. Ondorioak

I. Sarrera

Soziologia jakintza zientifiko bezala XIX. mendean sortu zen, A. Comte soziologo frantsesak gizarte-ekintzen azterketa adierazteko “soziologia” hitza erabili zuenean. Soziologia gure errealitate soziala aztertzen duen zientzia da, gure bizitzeko modua aztertzen duena. Zientzia hau, bereziki antropologiaren eta psikologiaren artean kokatu daiteke, bi zientzia hauekin lotura estua gordetzen duelako. Hau horrela izanda, esan daiteke soziologiak gizartea aztertzen duela, eta azterketa hau gizartetik bertatik egiten duela. Hau da, soziologiak ohikoa, arrunta edo “normala” dena lantzen du.

Bestalde, soziologiarekin lotuta dauden ikasgaiak graduaren ikasketa-planean gutxi dira; izan ere, Kriminologia graduko lehenengo mailan “Soziologiarako sarrera” besterik ez da ematen, eta hirugarren mailan “Desbideraketaren soziologia”. Amaitzeko, graduko laugarren mailan “Delituaren eta zigor kontrolaren soziologia” ikasten da. Hiru ikasgai hauek oso lotuta daude, desbideraketaren soziologia ondo ulertu eta sakontzeko soziologiaren alderdi eta kontzeptu garrantzitsuenak ezagutu behar direlako. Beraz, “Soziologiarako sarrera” ezinbestekoa da hirugarren mailako ikasgaia ulertu ahal izateko.

Honekin batera, esan beharrekoa da “Desbideraketaren soziologia” ikasgaiak garrantzi handia daukala Kriminologiaren graduarekin; azken finean, delituak desbideratzeak dira, eta delituaren munduari zentzua emateko, desbideratzeak zer diren, noiz ematen diren eta zergatik sortzen diren ulertu behar da.

Halaber, “Delituaren eta zigor kontrolaren soziologia” ikasgaiak ere garrantzi handia dauka, aurreko bi ikasgaien jarraipena delako, eta bere helburua kontrol sozialaren ikerketa da, baita gizarteko instituzioen ikerketa; bereziki, kontrol penalarekin loturiko instituzioena. Honekin batera, beste sozializazio eragileek instituzio hauekin daukaten erlazioa landuko da, adibidez, familia, eskola, teknologia berriak... Modu honetan, delituaren izaera soziala ezagutzen da ikasgai honetan.

Kriminologiak, bere ildotik, jakintza-alor anitzeko zientzia denez, beste hainbat zientzien ezagutzak hartzen ditu delituaren kausak aurkitzeko eta jokabide desbideratuei konponbidea eman ahal izateko. Modu honetan, soziologoek, haien teorien bidez, ikuspuntu soziologikoarekin hornitzen dute Kriminologiaren zientzia. Horri esker, kriminologoek lortu dezakegu kriminalitatearekin lotuta dauden fenomenoak ulertzea, soziologiatik datozen kontzeptu eta hipotesiak erabiltzeko gaitasuna lortuz.

Dena den, soziologiaren arloa ondo ulertu ahal izateko hainbat faktore eduki behar dira kontuan; adibidez, kultura eta gizartearen kontzeptuak, sozializazioaren prozesua, eta birgizarteratzea eta desbideratzea. Horregatik, kontzeptu hauen azalpena emango da aurrerago.

II. Kultura eta gizartea

Gizakia izaki soziala da beharra daukalako. Hau da, beste gizakien laguntza behar dugu bizirik irauteko, babesa edukitzeko, ugaltzeko, garatzeko, eta abar. Horretaz gain, gaitasuna daukagu besteekin erlazionatzeko, hitz egiteko, eta gizakiok gure artean ulertzea uzten diguna kultura da.

Kultura talde bat osatzen dutenek partekatzen duten elementuen multzoa da, bizitzeko modua ezaugarri duen multzoa, modu ordenatuan batera bizi ahal izateko. Kulturaren kontzeptua garrantzi handikoa da beste pertsonekin erlazionatzeko beharra daukagunetik, kulturak gure artean ulertu ahal izateko beharrezkoak diren elementuak barneratzen dituelako: sinboloak, hizkuntza...

Elkarrekin bizi ahal izateko, gure artean esanahiak trukatu behar ditugu, eta horretarako sinboloak erabiltzen ditugu (ukitu, entzun edo ikusi daitezkeen sinboloak). Adibidez, argi gorri batek hainbat esanahi eduki ditzake: itzalita, arriskua... Kontzeptu honen barnean hizkuntza dago, hizkuntzari esker delako posible komunikazioa.

Kulturaren beste elementu esangarri bat sinesmenak eta baloreak dira. Bi elementu hauek kulturaren ezaugarri materiagabeenak dira. Gehienetan, guk desiragarri bezela ikusten duguna irudikatzen duten ideia abstraktuak dira. Lau gertaera dira baloreak utzi dizkigutenak:

- Erljio kristaua: "Jainkoaren aurrean denak berdinak gara" berdintasunaren ideia, barkamena, maitasuna, bakea...
- Feudalismoa: desberdintasunaren onarpena, hierarkia, aristokrazia.
- Ilustrazioa: jakintza, zientzia, arrazioa eta aurrerapenen balorazioa. Zientziarekin loturiko logikazko ideiak.
- Industriaren iraultza: lana, aurrezte eta propietateen balorazioa.

III. Sozializazioaren kontzeptua

Kultura heredatu egiten da, sozializazio prozesuaren bidez bereganatzen da. Prozesu honek laguntzen digu gizakiak izaten (sozializaziorik gabe gure alderdi animalian geldituko ginateteke), identitatea ematen digu: hau da, zer garen (rola: semea, ahizpa, ikaslea...) eta nolakoak garen (pertsonalitatearen ezaugarriak). Gure identitatea bideratzen da guk bizitzen ditugun gertaerei esker, eta gure inguruari esker.

Beraz, esan daiteke sozializazio prozesua dela gizarte eta kultura jakin batean bizi ahal izateko prestatzen gaituen bidea. Hau da, arau eta baloreen barneratzea da. Prozesu hau identifikazio eta barneratze prozesu bat da, eta jarraitua da. Jarraitua dela esaten dudanean, esan nahi dudana da jaiotzen garen momentutik heriotzaraino doan prozesua dela, egoera berrietara moldatzen garelako.

Gainera, sozializazio egokia ezinbestekoa da pertsona eta kulturarentzako. Ondorioz, ematen du sozializazio prozesuak pertsona berdinak “sortzen” dituela, baina ez da horrela. Sozializazioak gizartean bizitzeko jarraibideak ematen dizkigu, baina familiaren, egoera ekonomikoaren eta abarren arabera, pertsona bakoitzak bere pertsonalitatea garatzen du.

IV. Sozializazio prozesua

Sozializazio prozesua bi fasetan zatitzen da: lehen mailako sozializazioa eta bigarren mailako sozializazioa.

Lehen mailako sozializazioa haurtzaroaren lehenengo urteetan ematen da, zuzeneko kontaktua daukagun talde txikietan (hau da, familia, haurtzaindegia...). Fase honetan haurra menpekotasuneko egoeran dago, eta horregatik familiarekiko maitasuna garatzen du, hauek zaintzen diotelako. Fase hau da garrantzitsuena, ezaugarri kultural basikoenak ikasten direlako: ohiturak, hizkuntza, oinarrizko baloreak, pentsamoldea, sineskeriak, usteak...

Bigarren mailako sozializazioan, berriz, azpikulturen ezaugarriak ikasten ditugu, adibidez eskolako azpikultura (elkarbizitza, arauak jarraitzea...), lanekoa (arauak, lan-taldea, elkarbizitza...), kirolekoa (ardura, errespetua...), lagun-taldekoa (laguntasuna)... Fase honetan gure ideiak, ohiturak, eta rolak aukeratu ditzakegu, eta praktikoki heriotzaraino irauten du.

V. Birgizarteratzea, konformitatea eta desbideraketa

Bigarren mailako sozializazioa eta birgizarteratzea ez dira nahastu behar, bigarren mailako sozializazioa lehenengoarekin koherentea delako (jarraipen bat bezala). Birgizarteratzea, berriz, lehenengo mailako sozializazioan ikasi eta barneratutako kulturaren desberdina den beste kultura baten barnerapena da (adibidez, apaiza edo moja bihurtzea). Baina pertsona batzuek bakarrik pasatzen dute prozesu hau.

Sozializazio prozesuaren emaitza da pertsonak kultura barneratzea, eta helburu hau arrakastarekin lortzen bada, aurau sozialarekiko konformitate o edo onarpena dagoela esan daiteke. Hau da, konformitatea dagoela esaten da sozialki egin behar duguna egiten dugunean, inork zaindu behar gabe, barneratuta daukagulako egin behar duguna.

Dena den, pertsona guztiek ez dute une orotan berengandik espero dena betetzen. Hau da, batzuetan gizartekideek bete behar lituzketen gizarte-arauak hautsiz, beraiengandik espero den jokaeratik desbideratu egiten dira. Desbideratze soziala, beraz, gizarteko gehiengoak onartzen dituen arauetatik kanpo jokatzeko dakarren ondorioa da. Gainera, desbideratzeak konnotazio txarra dauka, jokaera desberdin bat delako, eta askotan, txarra edo desagokia. Horregatik, konformitatea lortzeko eta desbideratzeak kontrolatzeko, gizarteak zigorrak (zigorrak edo sariak) ezartzen ditu, bai zigor sozialak bai penalak. Adibidez, kultura barneratzearen sari nagusia gizartearen onespena da, eta zigorra berriz, kultura ez barneratzeagatik gure gizarteak gu ez

VI. Ondorioak

“Soziologiarako sarrera” ikasgaia prestatuta dago ikasleak ezagutzeko errealitatearen dimentsio soziala eta, honekin batera, honen ikerketaren beharra ikuspuntu soziologikotik.

Horrela izanda, ikasgai honekin bilatzen dena da ikasleak ezagutu eta ulertzea soziologian erabiltzen diren oinarritzko kontzeptuak eta soziologiaren funtsezko ikuspuntu teorikoak. Bestalde, ikuspuntu praktikoa, bilatzen da ikasleak gaitasuna garatzea bere ezagutza teorikoak errealitate sozialarekin lotzeko. Horretarako, familian, eskolan, erlijioan, politikan... sortzen diren eguneroko egoerei buruzko hausnarketa etengabea egiten da.

Guzti hau beharrezkoa da geroago ikasiko diren “Desbideraketaren soziologia” eta “Delituaren eta zigor kontrolaren soziologia” ikasgaiak ikasteko behar diren ezagutza eta gaitasunak garatzeko.

Lehenago aipatu dudan bezala, kriminologia eta soziologiaren zientzia estu-esturik lotuta daude; izan ere, delitua desbideratze bat baino ez da, beraz, delitua ulertzeko ezinbestekoa da soziologiaren ikuspuntua ezagutzea eta lantzea. Hau da, nola lortuko dugu delitua eta delitugilea ulertzea, gure gizartean gertatzen dena ulertzen ez badugu?

Horregatik, nire ustez, hiru ikasgai hauek graduan lantzea oso lagungarria izan daiteke, delitua nola sortzen den eta zergatik gertatzen diren jokabide desbideratu hauek ulertzeko.

Honekin lotuta, aipatu beharrekoa da UPV/EHUko fakultatean soziologiarekin loturiko master bakarra dagoela, “Lege soziologiaren Nazioarteko Unibertsitate masterra”. Master honen bidez, ikasleak prestatzen dira ikerketa zientifiko independenteetarako, eta haien arazo praktikoei konponbidea aurkitzeko gaitasuna garatzen da. Honekin lortu nahi dena da gizartean legearekiko ezagutza eta ulermena zabaltzea, nazioarteko ikuspuntutik.